

**Euskarako azterketen gaineko txostena
(euskara ziurtagirien sistema hobetzeko irizpideak)**

Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen

Jarraipen Batzordea

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoak 18

SARRERA

Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak, euskara egiaztatzeko sistemak aztertzeko eta hobetzeko lantalde teknikoaren eta kanpoko adituen iritziak aintzat hartuta,

- Alde batetik, oso-osorik onartzen du berriaz sortutako Lantalde Teknikoak hilabete hauetan atondu duen txostena eta oso-osorik bere egiten ditu lantalde teknikoak egiten dituen gomendioak (txosten honen 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 12 puntuetan jasoak) .
- Beste alde batetik, aintzat hartzen ditu, baita ere, kanpoko adituek egin dituzten bestelako ohar batzuk (txosten honen 8, 9, 10 eta 11 puntuetan jasoak)

Horrenbestez, horien guztien iritziak eta iradokizunak sakon hausnartu ondoren, Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordea ondorio hauetara heldu da.

ONDORIOAK

1.- Azterketen diseinua eta aztertzaileen fidagarritasuna

Euskararen ezaguera egiaztatzeko azterketek (EGA, HABE, Hizkuntza Eskola Ofizialak, Administrazioeko hizkuntza eskakizunak –IVAP, Osakidetza, Ertzaintza eta Hezkuntza–) erabateko baliotasuna dute (alegia, neurtzen dute neurtu behar duten gaitasun maila); era berean, aztertzaileen fidagarritasuna guztiz bermaturik dago. Halaxe egiaztatu zen 2007an eta 2011n, azterketa sistema horiek denak Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera ebaluatzeko kanpoko adituen taldeak egindako txosten teknikoetan.

2.- Hobekuntzaren eta berrikuntzaren bidetik

Nolanahi ere, argi dago erakunde akreditatzaileak ezin gera daitezkeela lozorroan, eta begiak ondo egindakoari bakarrik jarrita; aitzitik, aurrerapausoak eman behar dituzte eta etengabeko hobekuntzaren bidetik jarraitu, gaur egun han eta hemen erabiltzen diren euskarako proben kalitatea zabalagotzeko eta sendotzeko.

3.- Administrazioeko langileen hizkuntza eskakizunak

Argi dago hizkuntza eskakizunen esleipenak lotuta egon behar duela ezinbestean lanpostuaren funtzio komunikatiboekin, eta hala gertatzen da kasu gehienetan; hala ere, kasu batzuetan, hezkuntza arautuak berak aitortzen duen gaitasun mailatik gorako hizkuntza eskakizunak eskatzen ari direla iruditzen zaigu. Horiek horrela izanik, ez dirudi

oso zentzukoa administrari bati 3. edo 4. HE ezartzea edo basozain bati 3. HE. Ez eta 4. HE orokortzea goi mailako teknikarien artean, esparru batzuetan gertatu izan den bezala. Ustez normalizaziorako egokiak izan daitezkeen neurri horiekin behartzen ari gara jende asko ikasketa akademikoen prozesuan jaso duen hizkuntza prestakuntzaz gaindiko produkzioak egitera, eta horrek porrota ekar dezake uste baino gehiagotan.

4.- Trebetasunkako egiaztapena

Gaur egun, hizkuntza eskakizun bat bete nahi duenak hizkuntza eskakizun horri dagozkion trebetasun guztiak egiaztatu behar ditu (irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina); nolahi ere, trebetasun komunikatibo horiek askotan ez daude denak maila berean; are gehiago: batzuetan gerta liteke trebetasun bat edo beste beharrezkoak ez izatea lanpostu jakin batean jarduteko. Jar dezagun adibide bat. Eskola bateko jatorrean umeak zaintzen dituen begirale batek B2a behar ote du, bere osoan, lana behar bezala egin ahal izateko? Ulermenean eta mintzaminean, seguru asko, bai, umeekin hizketan aritu behar delako; baina, justifikatuta ote dago maila hori bera eskatzea idazmenean edo irakurmenean ere?

5.- Konpentsazio-sistema

Normalean, erakunde akreditatzaileen azterketa bat aprobatzeko, trebetasun guztiak gaitu behar dira: denak; batean huts eginez gero, emaitza EZ GAI izaten da. Gure ustez, konpentsazio sistema zabaltzeko aukerak aztertu beharko lirateke, eta ateak ireki trebetasunen arteko konpentsazioei. Alde horretatik, zentzukoa dirudi trebetasun sortzaileek (mintzamina eta idazmena) konpentsatzea trebetasun hartzaileak (irakurmena eta entzumena), eta ez alderantziz. Horrek esan nahi du azterketari bati punturen bat falta bazaio irakurmena edo entzumena gaituzteko, GAI izan daitekeela baldin eta hutsune horiek konpentsatzen baditu mintzaminean edo idazmenean lortutako puntuazioarekin.

Era berean, bi trebetasun sortzaileei dagokienez (mintzamina eta idazmena), aztertzekoa izan daiteke idazmena konpentsatzea mintzaminean lortutako notarekin. Gaur egun, idatzizko azterketa gaituzte ez duenak, nahiz eta puntu batengatik izan, ez du aukerarik ahozko azterketa egiteko. Ahozkotasanari eta komunikagaitasanari behar duten garrantzia eman nahi bazaie, erakunde akreditatzaileek aztertu beharko lukete posibilitate hori. Bi aukera egon daitezke konpentsazio mota honi ekiteko:

- Lehen aukera litzateke trebetasun guztiak neurtzea. Bide honetatik abiatuz gero, idatzizko azterketak ez luke ahozko bidea itxiko, orain gertatzen den bezala. Bide hori guztiz egokia izan daiteke hautagai gutxiak deialdian. Lau kalifikazioak (trebetasun bakoitzekoa) edukita, hobetsitako konpentsazio sistema erabil liteke. Era berean, proba guztien zuzenketak eginda, hainbat trebetasunen notak gorde litezke deialdi batetik bestera, azterketariari erraztasunak emateko.
- Milaka laguneko deialdian, ordea, bigarren bide bat urratu liteke. Idazmena puntu batzuen faltan gaitu ez duen azterketariari aukera emango litzaioteko

mintzameneko azterketa egiteko, eta mintzamina eroso gainditzekotan, aukera izango luke idazmeneko hutsunea betetzeko, hau da, behar besteko neurrian konpentsatzeko, eta azterketa osoa aprobatzeko.

6.- Proben egokitzapena

Zenbait azterketak “bezero” natural batzuk izaten dituzte: Osakidetzako azterketek, osasun arloko funtzionarioak; Ertzaintzakoek, ertzainak; IVApekoek, funtzionarioak; EGARA batik bat gazte jende aurkezten da... Hori horrela bada, erakunde akreditatzaileek ahaleginak egiten jarraitu beharko lukete, beren azterketak azterketari horien ezaugarrien arabera egokitzen direla ziurtatzeko. Horrenbestez, hizkuntza eskakizunetako probetan Administrazioetik hurbileko gaiak eta ariketak hautatu beharko liriateke; modu horretara, administrazioetako teknikari eta administratiboek, sendagile eta erizainek, ertzainek... egunero-egunero sortzen zaizkien gaiak jorratzeko abagunea izango dute, proben edukiak eta xede-populazioen komunikazio-beharrak estuago lotuz. Ildo beretik, EGAn gazteentzat jakingarri diren gaiak proposatu behar zaizkie azterketariei (horretan egiten den ahalegina sendotuz), idazlanak edo mintza-saioak antolatzeko orduan.

7.- Ebaluazio jarraitua

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren euskarako azterketa sistemetatik bik dute lotura zuzena ikasketa prozesuarekin: HABErenak eta Hizkuntza Eskola Ofizialenak. Bi azterketa hauetara euskara-ikasleak aurkeztu ohi dira, kurtsoan zehar lortutako hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko. Kurtsoen bidez garatzen diren ikasketa prozesu hauetan, oso interesgarria iruditzen zaigu ebaluazio jarraituaren kontzeptua aintzat hartzea. Azken batean, kurtsoan barrena egindako lanak, erakutsitako jarrerak, egunez egun egindako hizkuntza ekoizpenak... ikas-prozesua ebaluatzeko eta hobetzeko ez ezik, egiaztapenerako ere isla behar lukete izan, neurri batean edo bestean. Betiere zaindu beharko da egiaztatzen den gaitasun-maila bat datorrela Europako Markoaren eskalekin.

Ebaluazio jarraitua egiaztatze-sisteman modu progresiboan txertatzeko ez dago legezko eragozpenik, ez Hizkuntza Eskola Ofizialen araubidean, ez eta HABEren araubidean, HABE sortzeko Legearen 13. eta 16. artikuluetan ahalmen akademiko osoa izango dutela xedatzen baita euskaltegi publikoei eta pribatu homologatuei dagokienez.

8.- Komunikagarritasuna, zuzentasunaren ginetik

Hainbat parametro hartzen dira kontuan, Idazmena eta mintzamina ebaluatzeko; bada, zuzentasun gramatikalak daukan garrantzia ukatu gabe, uste dugu komunikagaitasunari eman behar zaiola lehentasun osoa. Azken batean, komunikatzeko gaitasuna duten azterketariak nahi ditugu, akats batzuk gorabehera. Hori dela-eta, komunikagarritasunaren eta zuzentasunaren pisu erlatiboak birneurritatu beharko liriateke, lehenengoari pisu handiagoa emateko, bigarrenaren aldean.

9.- Ebaluazioa era positiboan

Idazlanak eta ahozko jardunak zuzentzen direnean, aztertzaileak balantza batean jartzen ditu akatsak eta ondo egindako atazak. Gure ustez, idazmenaren eta mintzamenaren ebaluazioa era are positiboagoan egin beharko lukete aztertzaileek, azterketariak egiten dituzten gauza onak azpimarratuz eta behar bezalako balioa emanez.

10.- Maila bakoitzaren funtzioei erreparatuz

Maila bakoitzean, funtzio batzuk menderatzeko gaitasuna erakutsi behar du azterketariak. Behe-beheko mailetan, gauzak deskribatzen jakin behar du; baina, zailtasunean gora egin ahala, gauzak kontatzen asmatu behar du, edo argumentatzen... Gure iritziz, aztertzaileek, notak jartzeko orduan, maila bakoitzari dagozkion atazei erreparatu beharko liekete nagusiki, maila horretatik gora egiten diren akatsei gehiegi erreparatu gabe. Azterketari bat, argazki bat deskribatzeko agindu zaiola, argumentatzen hasten bada, edo konparazioak egiten... eta huts egiten badu, produkzio akastun hori ez litzateke erabakigarria izan beharko azken emaitzetan, izan ere, neurtu nahi dugun gaitasuna deskribapena da, eta horri erreparatu beharko genioke.

11.- Hitz kopurua idazlanetan

Euskara hizkuntza aglutinantea da. Horrek esan nahi du preposizioak, artikulua... erabili ordez (gaztelaniak egiten duen bezala), deklinazioaz baliatu ohi dela perpausaren osagaiak elkarri uztartzeko: “en los árboles de los montes” (6 hitz), “mendietako zuhaitzetan” (2 hitz). Aditzarekin antzera gertatzen da: askoz ere trinkoagoa denez, askotan ez du izenordainen eta horrelakoen laguntzarik aditzera eman nahi duena aditzera emateko. Horren guztiaren ondorioz, esan daiteke, oro har, hitz gehiago behar izaten direla erdaraz euskaraz baino, mezu bera adierazteko.

Horrenbestez, euskararen ezaugarri hori kontuan hartu beharko litzateke, idazlanetako hitz kopurua zehazteko garaian. Ezin dugu kopiatu gaztelaniaz eskatzen den hitz kopurua; aitzitik, euskarazko idazlanetan hitz gutxiago eskatu beharko lirateke, beste hizkuntzekiko oreka hobeto gordetze aldera.

12.- Lantalde tekniko iraunkorra

Euskara Egiatagiriaren Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak lantalde tekniko iraunkor bat izendatuko du, hari asistentzia teknikoa emateko, eta, era berean, kanpoko adituen irizpenak eskatu ahal izango ditu. Lantalde horretan parte hartuko dute erakunde akreditatzaile guztietako teknikari gaituek, eta bere funtzioak aholkularitza mailakoak izango dira. Lantalde horrek sakondu lezake kontu teknikoetan, eta oinarriak jarri erakundeen arteko benetako lankidetzaz ziurtatzeko, hori guztiori, proben kalitatea etengabeko hobekuntzaren bitartez areagotzeko.

13.- Epeak

Erakunde akreditatzaile guztiek hurrengo deialdietan jasoko dituzte txosten honetako gomendioak, datorren urteko azterketetan horiek aplikatzen hasten direla bermatzeko. Hori horrela izanik, Lantalde teknikoa gehienez ere hilabeteko epean osatu, eta abian jarriko da, proposamen zehatzak egiteko; halaber, egoki ikusten diren kanpoko adituei ere iritzia eskatu ahal izango zaie kontu horien guztien gainean.